



EBAZPENA, ANIZTASUNERAKO ETA INKLUSIORAKO ZUZENDARIARENA, 2026-2027 IKASTURTERAKO ESKOLATZE-PROGRAMA OSAGARRIAK APLIKATZEARI BURUZKO JARRAIBIDEAK ONARTZEN DITUENA, EAEKO IKASTETXE PUBLIKO ETA ITUNPEKO GUZTIETAN

Sarrera

Hezkuntza-sistema inklusibo baten esparruan aniztasunari erantzuteko ekainaren 18ko 78/2024 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleentzat, 8. artikuluko 3. puntuan zehazten du Eskolatzeko Programa Osagarriak aniztasunari arreta emateko neurri estruktural eta osagarriak direla.

Maiatzaren 30eko 77/2023 Dekretuaren bidez, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezarri zen, eta dekretu honen 23. artikulua ezartzen ditu aniztasunari erantzuteko neurriak, eta 2. puntuan, berriz, dio neurri horiek xede hau dutela: ikaslearen hezkuntza-premiak asetzea, ingurune normalizatu eta inklusiboan. Nolanahi ere, neurri horiek Oinarrizko Hezkuntzako ikasleen irteera-profilerako ezarrita dagoen konpetentzia maila lortzeko bideak aurreikusi behar dituzte. 26 artikuluan xedatzenenez, Eskolatzeko Programa Osagarriak neurri horiek jasoko dituzte.

Era berean, 77/2023 Dekretuak 26. artikuluan garatzen ditu Eskolatzeko Programa Osagarriak, eta 2.atalak ezartzen du "Programa horiek egiturazkoak izango dira, eta egoera pertsonalen edo eskola-historiaren ondorioz ikasteko eta parte hartzeko oztopoak dituzten ikasleak bilduko dituzte, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan aniztasunari erantzuteko aurreikusitako neurri guztiak hartu ondoren betiere". 3. atalak adierazten du Eskolatzeko Programa Osagarrien helburua ikasle horiek heziketa-prozesuarekiko, ikaskideekiko, irakasleekiko eta gizartearekiko harrera baikorra edukitzea bilatzea dela, hartara arlo pertsonalean eta sozialean aurrera egin dezaten eta, programa amaitu ondoren, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako helburuak lortzeko prozesuari berrekin diezaioten.

Ekainaren 23ko 118/1998 Dekretuak, eskola muinbakarraren eta integratzailearen esparruan, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei hezkuntzaren eremuan emandako erantzuna antolatzeari buruzkoak, 23. eta 24. artikuluetan adierazten duenez Hezkuntza Administrazioak Eskolatzeko-programa osagarriak ezarri ahal izango ditu aparteko egoerei erantzuteko. Programa horiek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleak aldi baterako hartu ahal izango dituzte, betiere Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzuen proposamenen arabera, eta baldin eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren esparru orokorrean egokitutako neurriak nahikoak izan ez badira.





Era berean, Dekretuak adierazten duenez programa horiek hezkuntza-premia bereziak, eskola-moldagabeziari lotutako egoera larrietatik sortutakoak, dituzten ikasleei laguntzeko sortu dira, hain zuzen ere, beren hezkuntza-prozesuen aurrean, ikaskideen eta irakasleen aurrean eta gizarte-ingurunearen aurrean jarrera positiboak garatzen laguntzeko, bide horretatik egokitzapen pertsonal eta sozialean aurrera egiteko eta ahal den neurrian DBHn aurreikusitako helburuak lortu ahal izateko.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren 2002ko maiatzaren 7ko Aginduak, gizarte- edo kultura-egoera txarrean dauden ikasleentzako hezkuntza-ekintza eta eskolara egokitzeko zailtasun larriak dituzten ikasleentzako hezkuntza-interbentzioko neurriak arautzen dituen Agindua aldatzen duenak, honako hau ezartzen du bere 14. artikuluan: "Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, ikasle jakin batzuen hezkuntza-premia berezien aurrean erantzuteko bide arrunt eta aparteko guztiak agortu ondoren eta zailtasun sozial bereziak edo eskolan moldatzeko zailtasun handiak dituzten ikasleei edota ikasleen kolektiboari erantzutearren, berariazko tratamendu bat hartu ahal izango da aparteko izaeraz, ...".

Aparteko izaera duen bide bat dela azpimarratu beharra dago eta, beraz, oso aplikazio murrizta du. Hori dela eta, norabide batzuk ezarri behar dira neurri honen aplikazioak bere aparteko izaera gal ez dezan, ikastetxeak eskueran dituen neurri guztiak —arruntak nahiz apartekoak— hartu ondoren, eskolatze-programa osagarri batean sartzearekin zerikusia duten erabakiak hartu aurretik, hain zuzen.

Programa horien aparteko izaerari eusteko eta dagozkien helburuak bete ahal izateko, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren izaera muinbakarra kontuan izanik, ezinbestekoa da ikastetxean martxan jarri ahal izango diren eta prebentziozko izaera duten neurri guztiak nabarmentzea, eta bereziki zaintzea ikasleren bat programa hauetakoren batean sartzeko erabakia hartzeko ezinbesteko prozesua.

Horren guztiaren ondorioz, eta 381/2024 Dekretua, azaroaren 19koa, Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen, eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak aintzat harturik,

EBAZTEN DUT

1.- Eskolatze-Programa Osagarrien xedea

1.1.- Eskolatze-Programa Osagarrien xedea hau da: jarraibide hauen 3. Artikuluan deskribatutako ikasleei, berariazko unitateetan, beren garapen pertsonalerako, berriro sistema arruntera egokitzeko edo ondoren lanbide-hastapeneko ikasketei (horiek helduaroan eta bizitza aktiboan sartzeko gaituko dituzte) ekiteko baliagarrienak diren ikaskuntzak eskaintzea. Horretarako bide izango da beren premia pertsonal nahiz sozialetara egokitutako curriculumak, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako oinarritzko gaitasunei uko egin gabe. Edozein modutara ere,



curriculumeko alor instrumentalei emango zaie lehentasuna, betiere ikasle horien beharretara egokitutako metodologia erabiliaz.

1.2.- Hezkuntza-izaera duen muturreko neurri bat da, ikasleei egokitzapen pertsonala eta soziala lortzeko aukera eskaini nahi diena, zirkunstantzia pertsonalak edo sozialak direla-eta halako hezkuntza-neurriak behar dituztenean.

1.3.- Aldi baterako neurria da, inoiz ez behin betikoa, ikaslea ahal bezain laster sistema arruntean berriro sartzea lortu nahi baita.

1.4.- Aparteko neurri bat da, hain zuzen ere esku-hartze multzo bat aplikatu ondoren esperotako emaitzak lortu ez direla egiaztatzean hartzen dena. Esku-hartze horietako batzuk hezkuntzaarlokoak eta prebentzio-izaerakoak dira eta beste batzuk curriculum-izaerakoak, arruntak nahiz apartekoak, behar bezala diseinatutakoak eta planifikatutakoak betiere.

2.- Eskolatzeko-Programa Osagarrien curriculum-alderdiak

2.1.- Eskolatzeko-Programa Osagarrietan garatuko den curriculumak erreferentzia gisa hartu beharko ditu Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzari lotutako gaitasunak, eta dagozkien edukiak ikasle hauen premietara egokitu beharko dira.

2.2.- Hezkuntza-premia horiek bi talde nagusitan bana ditzakegu:

- Egokitzapen pertsonal eta sozialari lotutako premiak
- Curriculum-alderdien oinarrizko ikaskuntzei lotutako premiak

2.3.- Premien arabera bi talde nagusi horien inguruan, Eskolatzeko-Programa Osagarriko banakako nahiz taldeko curriculumari dagozkion helburuak eta antolamendua ezarri beharko dira.

2.4.- Eskulaneak eta lanaren aurreko jarduerak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako oinarrizko gaitasunak lortzera bideratuta egon behar dute. Hori dela eta, beren lehentasunezko helburua ez da lanbide-gaitasunen bat lortzea izango, hori Lanbide Hastapenerako Programei dagokien helburua baita.

2.5.- Eskolatzeko-Programa Osagarrietan sartzeko proposatu diren ikasleen banakako programak prestatzeko, ikastetxeek aholkularitza eskatu ahal izango diete zonako laguntza-zerbitzuei.

3.- Eskolatzeko-Programa Osagarriko hartzaileak

3.1.- Eskolatzeko-Programa Osagarriak zailtasun sozial bereziak dituzten edo eskolan moldatzeko zailtasun handiak dituzten ikasleei soilik zuzenduta daude, zirkunstantzia horietan eta horiek aldatzen ez diren bitartean bideraezina denean hezkuntza-prozesu normalizatua.



3.2.- Eskolatzeko Programa Osagarriko hartzaile izango diren ikasleek programaren hasierako urteko abenduaren 31n gehienez 15 urte izango dituzte.

3.3.- Ezinbestekoa izango da ikaslea matrikulatutako ikastetxeak txostena egitea, Hezkuntza Ikuskaritzaren oniritzia eta guzti. Txosten horretan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren araudi arruntan aniztasunari arreta eskaintzeko aurreikusten diren neurrien (horien artean ditugu hezkuntza-indargarriak, curriculum-egokitzapena eta berariaz esku hartzeko proiektuak) testuinguruan ordura arte hartutako neurrien ebaluazioa egingo da.

4.- Iraunaldia

4.1.- Eskolatzeko Programa Osagarriak beti dira aldi baterakoak eta horiek diseinatzerakoan finkatuko da horien hasiera eta amaiera. Proposamenaren iraupena ez da 2026-2027 ikasturtea baino luzeagoa izango.

4.2.- Eskolatzeko Programa Osagarriaren aplikazioaren aldia luzatzeko edozein erabaki hartu aurretik behar bezala baloratu beharko da egoera eta berariaz eta arrazoiak adieraziz eskatu beharko zaio Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzako arduradunari, baimendutako lehenengo indarraldia amaitu eta gero.

5.- Eskolatzeko Programa Osagarri batean sartzeko ikasleak proposatzea

5.1.- Eskolatzeko Programa Osagarri batean sartu behar duten hautagaiak ikasle batzuegan sor daitezkeen portaera disruptiboak edo eskolarekiko gaitzusteak eragozteko prebentziozko eta jardun esplizitu eta positiboko neurri batzuk hartu direnean identifikatzen dira.

5.2.- Jarraitu beharreko prozedura honakoa izango da:

- a) Ikaslearen kurtsoko irakasle-taldea bilduko da, eta ikastetxeko orientatzailearen partaidetza eta laguntza-zerbitzuen aholkularitza izango dute. Hezkuntza Ikuskaritzaren iritzia eta laguntza ere jaso ahal izango da eta, egoki izanez gero, zonako gizarte zerbitzuen iritzia ere bai. Irakasleen taldeak txosten bat egingo du ikaslea Eskolatzeko Programa Osagarri batean sartzeko proposamenaren komenigarritasunaren zergatia azaltzeko. Argibide hauetako 3.3 atalean ezarritakoarekin bat etorritik, adierazitako txostenean ikastetxean ordura arte zein neurri hartu diren eta horien emaitzak zein izan diren zehaztuko da. Bertan banakako curriculum-proposamena ere adieraziko da eta bertan zehaztuko dira zein premia dauden eta zein xede lortu nahi den.
- b) Programa ikaslea matrikulatutako ikastetxean bertan egingo bada, proposamena Eskolatzeko Programa Osagarriaren proiektuan txertatu beharko da, betiere 2002ko maiatzaren 7ko Aginduak 16. artikuluko 5. atalean xedatutakoarekin bat etorritik.



- c) Ikaslea matrikulatutako ikastetxean inolako Eskolatzeko-Programa Osagarriak onartu ez bada, irakasle-taldeak programa horiek garatzeko baimena duen beste ikastetxeren bat proposatu ahal izango du. Hezkuntza Administrazioak erabakiko du zein den zentrorik egokiena, baimena duten espezifikoen artean, 2002ko maiatzaren 7ko Agindua 16. artikulua 7. atalean xedatutakoarekin bat etorritik.
- d) Jardungo den moduaren berri emango zaie legezko erantzuleei, eta beren iritzia biltzeaz gain, informazio guztia eskainiko zaie ikasleari dagokionez proposatuko den neurriari buruz, hots, eskola-etorkizunaren aurreikuspenari, proposatzen den modalitateari eta eskolatzeko normalizaturaren itzultzeko aukerei eta horretarako baldintzei buruz.
- e) Txostenari ikaslearen eta horren legezko ordezkarien onespena erantsiko zaio.
- f) Irakasle-taldeak proposamena bidaliko dio ikastetxeko zuzendaritzari, eta horrek proposamena aztertuko du, eta egokitzat joz gero, proposamenaren izapideak egingo ditu.

6.- Izapidetzea

Ikastetxeko zuzendaritzak izapide guztiak bitarteko elektronikoen bidez eskatu, kontsultatu eta egin beharko ditu, BHLP aplikazioaren bidez (Berariazko Hezkuntza-Laguntza Premiak dituzten ikasleak), EPO fitxan (Eskolatzeko Programa Osagarria), eta erabiltzailearen eskuliburuan aurreikusitakoaren arabera.

Erabiltzailearen eskuliburua aplikazioaren direktorio komunean egongo da eskuragarri.

7.- Eskakerei buruzkoa

7.1.- Eskakerei (I. dokumentua) BHLP aplikazio informatikoaren bidez egingo da (EPO fitxa), eta legezko ordezkariak (II. dokumentua) eta ikasleak (III. dokumentua) baimena erantsi beharko da.

Eskakerei zuzenean beteko da aplikazioan, eta legezko ordezkariak eta ikasleak adostasunerako formularioak aplikaziotik bertatik deskarga daitezkeen dokumentuak dira.

Eskakerei buruzko azken eguna 2026ko ekainaren 26an izango da, hau barne.

7.2.- Ikastetxeak ikasle bat baino gehiago proposatuz gero, lehentasun-ordena ere jarriko du, proposaturiko ikasleak premien arabera, I. dokumentuan jasotzen den bezala.

7.3.- Salbuespen gisa, aurretik ikusi ezin izan delako edota beharra gero gertatu delako, arrazoiak proposamena egin ahal izango da, 2026-2027 ikasturtearen lehenengo hiruhilekoan, Eskolatzeko-Programa Osagarria sartzeko, jarraibideotan ezarritakoaren arabera.



8. Onespena

8.1.- Inklusioa, Bizikidetzeta eta Aniztasunaren Kudeaketa Garatzeko Zentroak (aurrerantzean, Bizilab) eta Hezkuntza Ikuskaritzak egindako nahitaezko txostenak ikusita, Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzak, kasu guztietan, honakoak egingo ditu:

- a) Ikaslea Eskolatzeta-Programa Osagarri batean sartzeko edo ez sartzeko erabakia hartuko du.
- b) Ikaslea zein ikastetxetara joango den erabakiko du. Ikastetxe horrek Hezkuntza Sailaren baimena duten horien artekoa izan beharko du.
- c) Hartutako erabakiaren berri emango die ikastetxeei, prozedura izapidetzeko aplikazioaren bidez. Erabaki hori ez da gauzatuko, hau da, ikaslea ez da programa hau irakasten duen ikastetxera atxikiko, jatorrizko zentroak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakasletaldearen eta Eskolatzeta-Programa Osagarriaren arduradunen arteko koordinazio eta jarraipenerako plana (IV. dokumentua) aurkeztu arte.
 - c.1) Ohiko aldirako, plan hau eskabidea aurkezten den ikasturteko irailaren 15a baino lehen aurkeztu behar da.
 - c.2) Ezohiko aldirako, hamar eguneko epea izango da, eskaera onartzen dela jakinarazten denetik aurrera.

8.2.- Dagokion Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzaren proposamena onartzen ez denean, ikastetxeko Zuzendaritzak desadostasunaren berri eman ahal izango dio Ordezkaritzari berari, desadostasuna eragin duten arrazoiak zehaztuta.

9.- Ikaslearen egoera akademikoa

Ikaslea jatorriz dagokion Bigarren Hezkuntzako ikastetxean matrikulatuta agertuko da eta espediente bertan izango du irekita, 2002ko maiatzaren 7ko Aginduak 17. Artikuluan xedatutako baldintzetan. Beka, eskola-seguru eta gainerakoen izapideak eta ikasle horren eskolaratzeari buruzko agiri ofizial guztiak jatorrizko ikastetxeak egingo ditu.

10.- Ebaluazioa eta jarraipena

10.1.- 2002ko maiatzaren 7ko Aginduak, 18.1 artikuluan, xedatutakoarekin bat etorritik, gutxienez hiru hilabetetik behin programa hauetako ikasleen banakako jarraipena egingo da. Horretarako jarraipenerako batzorde bat eratuko da. Batzorde horren partaideak honakoak izango dira: ikaslea matrikulatutako ikastetxeko ikasketaburua, programaren arduraduna eta tokian tokiko



Bizilab aholkulari bat. Batzorde horretan parte hartu ahal izango dute, halaber, ikastetxeko orientatzaileak eta ikaslearen tutoreak.

10.2.- Legezko ordezkariari informazioa eskaintzerakoan, informazioa batera landuko dute Bigarren Hezkuntzako ikastetxeak eta Eskolatzeko-Programa Osagarriaren arduradunek.

10.3.- Ikasle baten ikasketa-mailak eta baldintzek hala aholkatzen dutenean, batzorde horrek proposamena egin ahal izango dio ikastetxeko zuzendaritzari ikaslea berriro sartzeko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan dagokion kurtsoan. Hori familiari, ikasleari eta Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzari jakinaraziko zaie. Horrela, ikaslea programa horretan sartzeko Ordezkaritzan hasitako espedientea bukatutzat emango da.

10.4.- Jatorrizko ikastetxeak du bere ikasleen absentismo-protokoloari jarraipena emateko ardurak; horretarako, Eskolatzeko-Programa Osagarria gauzatzen duen ikastetxeak informazio zehatza eta berehalakoa emango du horri buruz.

10.5.- Posible den neurrian, ikaslearen jatorrizko ikastetxeko zuzendaritzak ahalegina egingo du ikasleak ikastetxearekiko eta bere ikaskideekiko harremanei eusteko ekintza guztiak ahalbidetzeko (eskolaz kanpoko ekintzak, bidaiak, jaiak, ikasleentzako informazioa...).

10.6.- Eskolatzeko-Programa Osagarriak egiten dituzten ikastetxeetan, programa horien jarraipena eta balorazioa 2002ko maiatzaren 7ko Aginduaren 18. artikuluko 2. Atalak xedatutakoari jarraiki egingo da. Artikulu horrek, hain zuzen, programaren ebaluazioari buruzko txostena egin beharra dakar, eta txosten hori horretarako propio egindako bileran aurkeztuko da, programa garatzen den ikasturteko ekainean egingo dena.

11. Programari uko egitea

Programan parte hartzea onartzeak berekin ekarriko du legezko ordezkariak eta ikasleek ikasturte osoan parte hartzeko konpromisoa hartzea.

Hala ere, jatorrizko ikastetxeak, legezko ordezkariak edo ikasleek uko egiten badiote, espedientea artxibatuko da eta ikaslea programatik ateratzea ebatziko da.

Uko egitea ikasturtea hasi ondoren gertatzen bada, ikaslearen jarraipen-batzordeak txosten bat egingo du, ukoaren inguruabarrak jasota eta hura egokia den aztertuta, eta jatorrizko ikastetxera itzultzea ez gomendatzeko aukera izango du. Txosten hori Hezkuntza Ikuskaritzara bidaliko da, eta hark ukoarekin ados dagoen ala ez adieraziko du. Dokumentazio hori ikaslearen espedientean sartuko da, BHLP aplikazioan. Azkenik, Lurralde Ordezkaritzak, txosten horiek ikusita, ikasleak programatik atera eta jatorrizko ikastetxera itzultzea erabakiko du, edo, ahal bada, eskolatzeko-programa osagarria duen beste ikastetxe batera atxikitzea.



Vitoria-Gasteizen, sinaduraren egunean

MIKEL JUARISTI IZAGUIRRE
ANIZTASUNERAKO ETA INKLUSIORAKO ZUZENDARIA



ERANSKINA

DOKUMENTUAK (I, II, III y IV)

ESKOLATZE PROGRAMA OSAGARRIA

I. DOKUMENTUA.- IKASTETXEAREN ESKAERA ESKOLATZE-PROGRAMA OSAGARRI BATEAN SARTZEKO

1.- IKASLEAREN DATUAK:

IKASTETXEA		KODEA		HERRIA	
IZEN-ABIZENAK		HNA (HEZKUNTZAKO IDENTIFIKAZIO-AGIRIA)			
JAIOTEGUNA		SEXUA			
IKASLEAREN BIZILEKUA		HERRIA			
ZEIN IKASTURTETAN DAGO MATRIKULATUTA?		MAILA			
PROPOSAMENAREN DATA		LEHENENGO ALDIA EPO-an (bai ala ez)			

2.- PROPOSAMENA JUSTIFIKATZEN DUTEN INGURUABARRAK:

2.1.- Inguruabar pertsonalak eta soziofamiliarak¹

- Hezkuntza- eta eskola-historia
- Arazo pertsonalak, eskolakoak eta sozialak
- Familia- eta gizarte-ingurunearen ezaugarriak, itxaropenak, laguntzeko eta lankidetzan aritzeko aukerak, etab.

2.2.- Eskola-eremuko hezkuntza-garapenari buruzkoak

- Curriculum-gaitasunaren mailari dagokionez

¹Ikasleen gizarte- eta familia-inguruneari buruzko datuak islatzean, pertsonen intimitatea errespetatu behar da, eta egiten den proposamenerako argi eta garbi garrantzitsuak diren alderdietara mugatzen saiatu behar da.



- Motibazio- eta jarrera-mailei dagokienez
- Hezkuntzako esku-hartzearen ezaugarriei dagokienez

2.3.- Praktikan jarri diren ohiko eta ezohiko neurriak eta horien emaitzen balorazioa

3.- Ikaslearen premia esanguratsuenak, eskolatzeko programa osagarrian sartuz lortu beharreko helburuak eta jatorrizko ikastetxeak ikaslearekin lan egiteko proposatuko lituzkeen garrantzi bereziko edukiak.

4.- IKASLEA ZEIN IKASTETXE BAIMENDUTARA ETA HERRITARA BIDALTZEA PROPOSATZEN DEN (Adierazi bat baino gehiago, lehentasun-ordenaren arabera): ²

²Hautatutako destinoko zentroa Lurralde Ordezkaritzaren azken erabakiaren mende geratuko da.



1. _____
2. _____
3. _____
4. _____
5. _____
6. _____

5.- LEHENTASUN-HURRENKERAKO ZENBAKIA:³

_____ eskaeratik _____.

6.- ESKABIDEA

Hori dela eta, _____ (e) ko Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzako arduradunari eskatzen zaio Eskolatzeko Programa Osagarri batean sar dezala, goian adierazitako baldintzetan.

_____ (e) n, _____ (e) ko _____ren _____ (e) (a) n

Ikastetxeko zuzendaria

³Eskolatzeko Programa Osagarrietan ikasle bat baino gehiago sartzea eskatuz gero, eman zenbaki bana eskaera bakoitzari, lehentasun-hurrenkeran.



ESKOLATZE PROGRAMA OSAGARRIA

II. DOKUMENTUA - LEGEZKO ARDURADUNEN BAIMENA

_____ jaunak/andreak,
 _____ (e) ko (DBHko _____ mailako ikaslea) (aita/ama/legezko
 arduraduna) naizen aldetik, honen bidez jakinarazten dut
 _____ jaunak/andreak,
 _____ (tutorea, orientatzailea, ikastetxeko zuzendaria) den aldetik,
 (nire semea/alaba, tutoretzapekoa...) _____ Eskolatzeko Programa
 Osagarri batean sartzeari buruz irakasle-taldeak egindako proposamenari buruzko informazioa eman
 didala. Programa hori ordezko eta aldi baterako programa bat da, eta hezkuntza-prozesuarekiko jarrera
 positiboak garatzea eta hezkuntza-prozesua ikasleen premia zehatzetara egokitzea du helburu, ikasteko
 oztopoak gainditzeko eta hezkuntza-ingurune malguagoa eta pertsonalizatuagoa lortzeko, hazkunde
 pertsonalerako ikaskuntza erabilgarriak emango dizkiona.

Proposamen horri dagokionez, honako hau adierazi nahi dugu:

Eskolatzeko Programa Osagarri batean sartzea eskatzearekin ados dagoela adieraztea.

Ikasturte honetan nire alaba, semea edo tutoretzapeko adingabea programan jarraitzeko konpromisoari
 eusteko borondatea adieraztea.

Era berean, baimena ematen diegu hezkuntza-administrazioko profesionalei beste instantzia profesional
 batzuekin (osasun- eta gizarte-arlokoak) koordinatzeko, informazioa trukatzeko eta jarduketak egiteko,
 nire alabari, semeari edo tutoretzapeko adingabeari ematen zaion hezkuntza-erantzuna hobetzen
 laguntzeko, betiere Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren apirilaren 27ko 2016/679 (EB)
 Erregelamenduak eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko
 3/2018 Lege Organikoak.

_____ (e) n, _____ (e) ko _____ ren _____ (e) (a) n

Adingabearen aitaren/amaren/legezko
 arduradunaren sinadura

Tutorearen, orientatzailearen eta
 zuzendariaren sinadura

(Idazki horren kopia bat emango zaio legezko arduradunari, bi sinadurekin)



ESKOLATZE PROGRAMA OSAGARRIA

III. DOKUMENTUA - IKASLEEN ADOSTASUNA

_____ ikasleak, _____ ikastetxeko ikasleak, idazki honen bidez jakinarazten dut _____ jaunak/andreak (tutorea, orientatzailea, ikastetxeko zuzendaria), _____ jaunak/andreak, irakasle-taldeak Eskolatzeko-Programa Osagarri batean sartzeko egindako proposamenaren berri eman didala. Programa hori ordezkotako eta aldi baterako programa bat da, eta hezkuntza-prozesuarekiko jarrera positiboak garatzea eta prozesu hori nire beharretara egokitzea du helburu, nire hazkunde pertsonalerako ikaskuntza erabilgarriak emango dizkidan hezkuntza-ingurune malguago eta pertsonalizatuago bat bilatuz.

Proposamen horri dagokionez, honako hau adierazi nahi dut:

Ados nago Eskolatzeko-Programa Osagarri batean sartzearekin eta ikasturte honetan jarraitzeko konpromisoari eusteko borondatearekin.

_____ (e) n, _____ (e) ko _____ ren _____ (e)
(a) n

Ikaslearen sinadura

Tutorearen, orientatzailearen eta zuzendariaren
sinadura



ESKOLATZE PROGRAMA OSAGARRIA

IV. DOKUMENTUA - KOORDINAZIO ETA JARRAIPEN PLANA

1.- IKASLEAREN DATUAK:

IZEN-ABIZENAK		HNA (HEZKUNTZAKO IDENTIFIKAZIO- AGIRIA)			
JATORRIZKO IKASTETXEA		KODEA		HERRIA	
PROGRAMA EMATEN DUEN ZENTROA		KODEA		HERRIA	

2.- ERREFERENTZIAKO PERTSONAK

	Izen-abizenak	Profila
Erreferentziako pertsona jatorrizko ikastetxean		
Eskolatze Osagarriko Programan erreferentziako pertsona		

3.- CURRICULUM PROPOSAMENA

3.1.- HELBURUAK

--



3.2.- FUNTSEZKO KONPETENTZIAK ETA KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

3.3.- METODOLOGIA

3.4.- EBALUAZIO-IRIZPIDEAK



4.- PLANGINTZA

Aurreikusitako bileren datak	Tokia	Bileraren xedea

_____ (e) n, _____ (e) ko _____ ren _____ (e) (a) n

DBHko ikastetxeko zuzendaria (jatorrizko ikastetxea)

Programaren arduraduna (destinoko zentroa)